

### 3. koadernoia: Seme-alaba izatera deituak (Urtean zeharreko aldia I) (urtarrilak 10 – martxoak 8)

#### 1. Bizitzatik abiatuta

Behin Gabonak eta Epifania amaituta, urtean zeharreko aldiko liturgia-erritmoan sartuko zara, zure hazkuntzarako laborategia, bai pertsona gisa bai Jesusen jarraitzaile gisa. “Neba-arrebekin lotuta familia-bizitzaren eta herri-elkarte bateko ministerioaren bitartez” (CC 11) eguneroko bizimoduan zure esperientzia errepikatuzera konbidatuta zaude: lehenengo deia, pertsona izateko, seme-alaba eta neba-arreba izateko, misiolari izateko.

Pertsona bakoitzak —gure kasuan, klaretar bakoitzak— bere historia pertsonala dauka. Zu, pertsona eta klaretarra zarenez gero, zeurea daukazu. Denboran zehar lantzen zoaz, hiru osagaien eraginari esker: zure *dohain genetikoa* (hartutako herentzia psikofisikoa); *egoera* (izan ere, zu “zu zeu eta zure egoera” zara eta egoera horrek uste duzun baino gehiago eragiten dizu), eta zure erabaki pertsonala, zure askatasuna —onerako edo txarrerako— erabiliz hartzen zoazena.

Giza oinarri horri, zure bokazioaren graziaren eragina gehitu behar diozu, hau da, Jainkoaren *deia* (hitzaren zentzurik gogorrean) eta norberaren *erantzuna*, horrek atzetik dakarren guztiarekin: banatzea (“Zer nahi duzu nigandik, Jauna?”) eta leialtasuna (“Hemen nauzu”) eskatzen dituen erantzuna, Bibliaren arabera, Jainkoaren lagun guztiek bizi izan dituzten bi une. Horrela bizi zara “Jainkoaren bokazioari erantzunez” (CC 5).

Zure esperientzia ezin da errepikatu, baina prozesu batzuek bat egiten dute zure neba-arrebenekin, bakoitzak bere erara bizi baditu ere. Horregatik, *Quid Prodest* aldiaren une berri honetan, koaderno honek laguntza izan nahi du galdera gehiago egiteko eta gogoetarako, aurkitzen zoazen argiak eta motiboak banatuz, eta egingo dituzun egitasmoak ere.

Zu ere jabetzen zara inguruko errealitateaz: gizartea, ekonomia, eliza, erlijioa, lana, klaretarrak... Horren aurrean kokatuta zaude. Errealitate horrek zuegan eragin ona eta txarra dauka, zuk horren aurrean jakinaren gainean eta askatasun osoz hartzen duzun jarreraren arabera.

Adibide bat? Sekularismoa: bizimodutzat hori hartzen duena Jainkoagandik urrun jartzen da. Arlo aproposa da zenbait jarrera hedatzeko, adibidez, erotismoa (kastitatearen aurrean); kontsumismoa (pobreziaren aurrean); autonomismoa

(obedientziaren aurrean); indibidualismoa (elkartearen aurrean); hedonismoa (gurutzearen aurrean)... klaretar gisa egoera horri ebanjelioaren begiradatik aurre egiten ez badiozu, leialtasunak zure bokazioari eskatzen dion moduan, ondorioak igarriko dituzu. Krisiak eta gorabeherak, hau da, tratamendu egokia ezarrita baino osatzen ez direnak. Beraz, pentsatu dena delako arrazoiengatik zure psikologia edo zure espiritua zauritzen ari den horretan.

Arestian aipatutako adibideak beste egoera asko dakartza gogora. Zehatzago, zuri galderak eragiten eta gogoetara eramaten zaituztenak, bai zure bizitzara dakarten eraginaz, bai, batez ere, ebanjelioaren ikusian aurre egiteko moduz.

Pentsatu nola erabiltzen duzun internet: berriak, iritziak, irudiak; edo pentsatu zure jarreraz hainbat lekutan dagoen pobrezia larria dela eta, etab. Prestakuntza iraunkor serio eta eraginkorrik gabe, nekez eramango duzu benetako klaretar bizitza. Bizitzen ari zaren “Sutegia eguneroko bizimoduan” esperientzia lagungarria izan behar da zure hazkuntza pertsonalean norabide horretan.

#### 2. Liturgia-aldia: *Per annum*

*Quid Prodest* esperientziaren zati honek liturgia-urteko urtean zeharreko aldiaren hasieratik Garizumara arte hartzen du.

Liturgia-aldi guztiek eskaintzen dute aukera modu berri batez txertatzeko fedearen gertaera berezian: Kristoren misterioan. Neba-arrebekin bizi zara klaretar anaitasunean, “elkarren arteko otoitzean, liturgiakoan batez ere, elikatzen den anaitasunean” (CC 12). Liturgiak, beraz, leku apartekoa hartu behar du Espiritu Santuak zure eguneroko bizimoduan jarduten duenean. Liturgia-urtea, bai osotasunean hartuta bai ospakizun, jai, memoria edo azoketan hartuta, historia-salbamen jazoerak elkarri lotuta osotutako *memorial etengabea* da, eta halakoak gauzatzen dira Kristo, denboraren Jaunarekin, pertsonak eta gauzek Espirituaren boterearen bitartez bat egiten dutenean.

Urtean zeharreko aldiak, liturgia-urteko luzeenak, salbamenaren misterioan sartzeko programa eskaintzen du. 34 (edo 33) astetan ospakizun kate bat osatzen du, Jaunaren bataiotik abiatuta. Igande bakoitzak bere balioa dauka, eta

alderdi berezi bat ospatzen ez bada ere, Kristoren misterioa bera bizitzen da bete-betean.

Ahalegindu batez ere ebanjelioaren irakurketa nabarmentzen orain hasiko dugun urtean zeharreko aldian. Horren bitartez zure barruko bizitza eta zure bizitza historikoa Kristo Jaunarengan jarriko duzu. Eta hor kokatu beharko duzu *Quid Prodest* ibilbideko alderdi oso zehatzak bizitzeko, adibidez zure nortasunaren misterioa, zure bokazioaren esperientzia, bidean hartu dituzun zauriak, zure askatasuna eta mendekotasunak. *Lectio continua* eguneroko leialtasunez zainduta, bihur ezazu aldi honetako zure esperientziaren tresna nagusi. Egin ezazu arretaz eta zehaztasunez.

### 3. Nire nortasuna: "Zu seme maitatua zara"

Koaderno honetako bide-zatiaren hasiera Jaunaren bataioko igandea da, urtean zeharreko aldiko lehenengoa. Ebanjelioak konbite egiten dizu galdera beti berria egitera zure nortasunaz: Nor zara zu benetan? Zer esango zenuke zure buruaz? Zer itxaron dezakezu? Zerk osatzen zaitu, kanpora erakusten duzunaz gainera? Zer duzu barru-barruan ezkatututa? Nola sartu kezkatzen zaituen misterioan?

Esperientzian oinarrituta, gogoeta egiteko giltza modura, zazpi tesi labur proposatzen zaizkizu. Zure nortasuna bilatzeko laguntzak dira, *Quid Prodest* une berezi honetan sakontzeko konbidatuta baitzaude.

#### a. Zure burua ezagutzen duzu ez osorik eta ez ondo

Segurutik entzun duzu inoiz beste batzuek zutaz daukaten iritzia. Hori gertatu zaizunean, ezagutu duzu zure burua deskribapen horretan? Beharbada batzuetan harritu egingo zinen uste ez zenuen moduan baloratuta ikustean. Hori da beste ezaugarri askoren arteko bat adierazteko zure burua ezagutzen duzula *zatika eta ez osorik*. Ez da hori bakarrik. Kasurik onenean handitzera jotzen du eta ez da inoiz amaitzen. Zuk zure nortasunaz ezagutzen dituzun alderdi batzuk zure ondoan bizi direnek igarri ere ez dituzte egiten. Eta alderantziz.

Zatikoa izateaz gainera, zure nortasuna ezagutzea bilakaeran dago. Zure bizitza osoa zure burua ezagutzeko bide amaiezina da, oso erabakigarria batez ere ebatzi garrantzitsuak eta behin betikoak hartzeko.

#### b. Zure burua ezagutzeko beste batzuen laguntza behar duzu

Zure burua ezagutzeko, zuk zeuk ezagutzen ez dituzun alderdi batzuen berri daukatenean laguntza behar duzu. Horregatik, ez utzi besteek, dena delako arrazoiengatik, beldurrik izan dezaten zurekin zintzo izateko zugaran ikusten eta ulertzen dutena adierazteko. Elkarlan horrek behar ditu konfiantza, gardentasuna eta argitasuna, batez ere zure burua ezagutu nahi baduzu hazten laguntzeko, eta ezaugarrien azterketa hutsa izan gabe.

#### c. Zure burua ezagutzen duzunean ustekaberen bat hartuko duzu

Norbere burua ezagutzeko bidean ustekabeak sortzen dira, batzuetan mingotsak. Batzuek era honetako ondorioetara eraman zaitzakete: "Ez nuen uste hain ahula nintzenik, hain sentibera, hain minbera, hain ez gauza haserrea menperatzeko..."

Beste batzuetan ezustea beste era batekoa da, adibidez ariketa fisiko batean zure jokabidea ikustean: "*Sinistuta nengoen ezin izango nuela sufrimendua jasan eta, aldiz, pozik aurkitu dut onartzea lortu dudala*".

Alderdi afektiboan batez ere, izango duzu ustekaberen bat, ziur. Adibidez: Bazenekien, teoriarik bakarrik, adiskidetasun hori zerbitzatzeko mendekotasun bihur zitekeela, baina ez zenuen uste egunen batean horretan eroriko zinenik... gaur egun autonomia gehiago lortzeko erronka duzu aurrean.

#### d. Zure burua gehiago ezagutzen duzu islatzen duzunarengatik zeure buruari begiratzeagatik baino

Gorputzeko atalak islatzen zaituen ispiluari begiratuta hobeto ezagutzen badituzu ere, zure nortasuna ezagutuko duzu jokatzeko eta egiten duzunaz gogoeta eginda, barrura begira eta arakatzen jarrita baino gehiago.

Zure burua ezagutzen duzu eguneroko bizimoduan jokoan sartzen den guztiaz jabetzen zarenean: jakintza arloa, alderdi afektiboa eta gurariena. Hartuko duzun erabaki bakoitzean zure buruaz gehiago jakiten lagunduko dizuten datuak aurkituko dituzu.

#### e. Zure burua ezagutzeko baliatu *feed-back*-a

*Feed-back* esango diogu besteengandik hartzen duzunaren oihartzunari, esan edo egin duzun zerbaitetaz (adibidez kritika batez, edo jendaurrean egindako gorazarre bat). *Feed-back*-a bitarteko oso erabilgarria da zure burua ezagutzeko. Horregatik, *feed-back* gisa aprobetxatu behar dituzu baita kritikak ere,

haserretu eta baztertu gabe, baita injustuak direnean ere. Gogoan hartzea lagungarri izan dezakezu, besteak beste, zutaz egiten diren iritziz zenbaitek, zure ustez okerrekoak, eragiten dizuten haserrea baretzen.

Zure burua ezagutzen aurreratzeko gogoeta egin beharko duzu lasai eta objektiboki besteengan eragiten dituzun oihartzun txarrez, ez onez bakarrik; era berean ustekabe mingotsak onartzeko apaltasun pixka bat baino gehiago beharko duzu.

**f. Kontuz zure burua ezagutzea morborako erabiltzeaz!**

Argia zarelako arriskua daukazu zure burua ezagutzea gaixotasun bihurtzeko. Izan ere, subjektibotasun gehiegizkorako arriskua dago. Zenbait girok baliteke erdian jartzera bultzatzea, zure buruari bakarrik begiratzera eta "nartziso" bat bihurtzeko.

Horren aurrean, bilatu zure egirik benetakoena, subjektibismotik aldentuta, zure nortasuna zarela uste duzunera mugatzen duelako, egiazatu gabe. Ohiko fenomeno batzuek, norberari gezurra esatea adibidez, pertsona den baino hobea dela sinestera eramaten du; edo alderantziz, besteek ikusten dutena baino txarragoa. Batzuk ez dira gai autokritika egiteko, arduratsuak,itsuak...

**g. Entzun Jainkoari: "Zu zara nire seme maitatua "**

Zazpigarren printzipioa laburtzen da Jainkoak Jesus semeari bataioko unean egindako adierazpenean: "Zu zara nire seme maitatua".

Bere burua ezagutzeaz esan daitekeen azkeneko eta hitzik handiena da. Une goren batean, Jesusi agertu eta ezagutzera ematen da Seme maitatuaren izaerarik sakonena.

Zure nortasuna ezagutzeko gorengo muturrean Jainkoak zutaz egiten duen agerpena dago. Hura ikustean ulertuko duzu Jainkoaren oparia dela, haren maitasunaren ekintza balio handikoa. Horrek agerian jartzen du proposatutako bigarren tesiaren alderdi transzendentea: zure burua ezagutzeak besteen laguntza eskatzen du; zehatzago, Jainkoarena, haren Hitzean hitz egiten baitizu.

Ondoren ariketa bi proposatzen dizkizugu, hemen esandakoa pertsonalizatzen laguntzeko modukoak. Nahikoa duzu bietako bat aukeratzea.

**ARIKETA: NORTASUN BIKOITZA?**

Auto-estima, auto-ezagutzaren alaba, gorabeheratsua izaten da, batzuetan guztiz aldakorra ere, pertsona bakoitzarengan eta sarritan baita egun beraren barruan ere. Segundo gutxitan alda daiteke norbere burua estimatetik guztiz gorrotatzera. Ariketa honek lagundu egingo dizu esperientzia aldakor horiek ezagutzen eta kontrolatzen.

- Orri batean, erdian goitik beherako marra batek zati bitan banatuta, idatzi ezkerrean nola sentitzen zaren, zer pentsatzen duzun eta nola jokatzeko duzun zeure buruarekin **ondo zaudenean**. Eskuinean, berriz, nola sentitzen zaren, zer pentsatzen duzun eta nola jokatzeko duzun zeure buruarekin **txarto zaudenean**. Idatzi burura etortzen zaizuna.
- Jabetu bi egoera horiek zure izatearen parte direla. Gauza biak zara. Pentsatu izen bat bakoitzarentzat, edo ikur bat beharbada.
- Ahalegindu igartzen zer egoera, esperientzia, pertsona edo ekintzak eragiten dizuten zure ongizate eta asetasuna handitu edo gutxitzea. Zehaztu zerk egiten duen zure buruarekin ondo edo txarto egotea. Jarri aparteko arreta besteek zure auto-ezagutzan daukaten eraginari.
- Amaitzean aurkeztu emaitzak Jaunari... irakurri haren aurrean zure lanaren ondorioak. Eta noizean behin jarri gertu Jainkoari entzuteko, zure kontzientziaren isiltasunean behin eta berriz esaten baitizu: "*Zu zara nire seme maitatua*".

### ARIKETA: MAITASUNAREN EMAITZA ZARA

Zure bizitza ez da kasualitatearen edo akats baten emaitza. Zure gurasoen maitasunean sortu da eta Jainkoak sortua zara.

Ariketa hau biren artean egin daiteke, elkarriketan, hitz egin eta entzuten. Baliteke garrantzitsuagoa izatea entzutea.

#### Bizitzako gertaera

Ezagutuko duzu, segurutik, pertsonaren bat badakiena ez dela gura izandako seme edo alaba. Baliteke harekin izandako elkarriketaren bat gogoratzea ere. Saiatu konturatzeko nola sentitzen duen hark jabetzarik eza datu horretatik eratorrita, haren bizitza akats baten emaitza balitz moduan, eta bizi beharko ez balitz bezala.

#### Azterketa

Norberaren errealitatea sentitzeko modu hori nahiko sarri errepikatzen da. Gurasoek nahi barik etorritako seme edo alaba baten lekukotasuna entzun duzun moduan, berdin entzun ditzakezu bizitza absurdo bat bizi dutela sentitzen duten pertsonen kontakizunak, edo inguru zail eta gogor batean irauten dutenena, norabiderik gabe bezala, zergatik eta zertarakorik gabe, familia edo elkarte bateko sentitu gabe. Sentitu zara inoiz horrela? Zer arrazoik eraman zaituzte sentimendu horiek izatera?

#### Jesusen eredia

Jesusek egoera oso zailak bizi izan zituen. Elkarreak eta familiak baztertu egin zuten. Jazarri eta hil egin zuten. Hala ere, zailtasun horien guztien erdian bere jatorria Aita zela argi gorde zuen, eta hari "Abba" eseraren bitartez zuzentzen zitzaion benetako intimitatean. Bizitzako une guztietan, eta gogorrenetan areago, Aitagan aurkitu zuen bere izate eta bizitzaren zentzua. Azken unean gurutzean, zuk eta beste askok bezala, Aitak utzi egin zuela sentitu zuen: *Ene Jainko, ene Jainko, zergatik utzi nauzu?* (Mk 15,36), eta hala ere konfiantzaz ematearen oroimena geratu da: *Aita, zure eskuetan jartzen dut bizia* (Lk 23,46). Zer dakarkizu Jesusen ereduak zure esperientziarako nortasunaz eta izateaz?

#### Mahatma Gandhiren otoitza

II. eranskinean daukazu. Zeure egin dezakezu, ziur, zure otoitz pertsonalaren gune, bizitzaren Jaunaren aurrean.

## 4. Nire bokazioa: "deia eta lehenengo maitasuna"

A zikloko urtean zeharreko aldiko hirugarren igandeak Jesusek aintziraren ondoan bi anaia pareri egiten dien kontakizun bokazionala dakar (cf. *Mt* 4,12-23). Merezi du denbora bat eman dezazun

gogoeta egiteko. Bi kontakizun aurkituko dituzu elkarren parean: lehenengoa, Pedro eta Andresen deia, eta gero ("aurrerago joan zenean"), Santiago eta Joanen deia. Errepikapenaren bitartez, ebanjelariak interesatzen diona azpimarra dezake. Zure bokazioaren gainean berriro gogoeta egiteko era da. Garrantzitsua ez da jakintzat edo hartakotzat eman behar. Bokazioa errealitate guztiz garrantzitsua da, bizitzaren sustraia eta helburua ukitzen baititu. Ebanjelioak printzipio batzuk gogoratzen dizkizu, *Quid Prodest*-en ikuspegitik zure bokazioaren irmotasuna indartzeko eguneroko bizimoduan. Helburua da lor dezazula "ahalik eta zehaztasunik handiena ekintza onen bitartez zeure bokazioa eta aukera ziurtatu dezazun" (CC 60).

- **Erdian beti dago Jesus protagonista.** Ekimena berea da ("*ikusit zuen*", "*esan zien*", "*deitu zien*"); pertsona bera ez da ikasle egiten, Jesusek bihurtzen du ikasle. Zure bizitzan Jesus erditik aldentzen bada edo beste batek ordezkatzeko badu, zure bokazioa arriskuan dago.
- **Ikaslea ez da deitzen doktrina bat onartu dezan.** Ezta ere proiektu bat ardatz gisa bizitzeko ere. Lehenengo helburua da lagun egitea, pertsona bati lotzea ("*Jarraitu niri*"). Ez inoiz ahaztu. Nola bizi ahal izango duzu zure bokazioa *Berarekin egon gabe*, haren lagun izan gabe?
- **Jesus pertsonari lotzea garrantzitsua da.** Hainbestearino, ikasleak ez du ikasketa prozesurik egiten bera maisu bihurtzeko. Alderantziz, beti ikasle geratuko da. Maisua bat bakarra da eta betiko. Ez alboratu Jesus Maisua. Zure jakituria Bera da.
- **Jesusi jarraitzeko gauza asko utzi behar dira.** Pedro eta Andresen deia eta Santiago eta Joanena egitura berari jarraituta eraikiak dira eta hiztegi berdinarekin. Hala ere, bada ezberdintasun bat nahiko handia; lehenengo kontakizunean esaten da "*sareak*" utzi zituztela; bigarrean, "*ontzia eta aita*" utzi zituztela. Beraz, *crescendo* bat igartzen da: lanbidetik familiara. Lanbideak segurtasuna eta gizarte-nortasuna adierazten ditu; aitak norberaren sustraiak adierazten ditu. Galdetu zure buruari zintzotasunez zure lana, familia, zaletasunak... Jesus baino indartsuagoak diren edo ez. Igartzen duzu ezertan?
- **Jarraitzea bidea da.** Jesusen deitik abiatuta, bi mugimendutan adierazten da (*utzi eta jarraitu*), bizitzaren muina lekuz aldatzea erakusten dutela. Jesusen deiak ez du egoera batean jartzen, bide batean baino. Jesusen

deiarri jarraitzeak ibilbide bat esan nahi du, *nondik* (eman izena egoerari...) *nora* (noraino?).

- **Jarraitzea misioa da.** Ikasleen koordinatuak bi dira: Jesusekin komunioa ("jarraitu niri") eta mundurako lasterketa ("gizaki-arrantzale egingo zaituztet"). Bigarrena lehenengotik sortzen da. Jesusek ez ditu ikasleak leku aparteko batean jartzen; gizakien bideetatik bidaltzen ditu.
- Geroago Jesusek erakutsiko du ikaslearen bidea gurutzea dela. Ikasgai gogorra izango da, ulertzeko zailena.

#### ARIKETA:

Lagungarria da klaretar baten bokazio-esperientzia irakurtzea (cf. IV. eranskina). Osotu ariketa honekin: baieztapen batzuk ematen dira bokazioaz. Haiekin bat bazatoz, azaldu eta justifikatu itzazu zeure bizitzatik hartutako gertaera pertsonal batekin:

- **Nire bokazioa ez da bazterreko gaia,** garrantzirik gabea, nire bizitzako ardatz nagusia baino.
- **Nire bokazioa ez da aukera intimo eta pribatua bakarrik,** batez ere Jainkoarekin eta besteekin dauka zerikusia.
- **Nire bokazioa ez da aukerakoa, planteatu edo ez egiteko modukoa,** baizik eta behin une bateraz gero sakon pentsatu behar izan dut eta, sarritan, erabakia eguneratu egin behar dut. Ezin dut beti jakintzat eman.
- **Nire bokazioa ez da agerikoa,** eten gabe aurkitu behar dut esperientzien bitartez eta Jainkoarekin harreman sarrikoa duela otoitzean.
- **Nire bokazioak zerikusia du nire gustu eta zaletasunekin, baina ez horiekin bakarrik.** Jainkoaren deia ez dut lotzen nire gurari edo ametsekin, sarritan sufriarazi egiten dit eta gauza ederrak baztertzera eramaten nau.
- **Nire bokazioa ezin dut bakarrik bizi.** Besteak guztiz garrantzitsuak dira, onerako eta txarrerako. Eraginak erabakigarriak dira zure garapenean. Ni ez nintzateke berdina izango harremana izan dudana pertsonak albo batera utzita.

#### 5. Berriro ikasi seme gisa bizitzen, ez esklabo gisa

Edozein ikasketa prozesuk eskatzen du maisu ona izatea eta ikasle fina. Ondo bizitzen ikasteko, beraz, beharrezkoa da bizitzeko artean maisu aditua izatea eta ikasle probetxuzkoa izatea. Azken hori ebanjelioan esanda dator "ume baten modukoa" bihurtzea esaldiarekin.

Pedagogoez diote haurtzaroaren bereizgarri nagusia dela ikasketa handien aldia izatea, ezabatzen nekezera direnena. Ebanjelioan esaten denean: "Umeen modukoak egiten ez bazarete...", ez da haurtzaroa idealizatzen –errakuntza izango litzateke–, ikasle-jarrerarik onena hartzeaz hitz egiten da.

Jesus maisua da bere bizitzarekin. Haren bizitzan dena bihurtzen da paradigma eta ikasteko eredu. Horretara makurtu beharko litzateke barruko identifikazioaren bila, Aita Claretek zioen moduan: "*Begiratu eta kopiatu. Kristori begirada bat, eta beste bat norbere buruari*"<sup>1</sup>.

Gure urtean zeharreko aldiko lehenengo asteko astearte eta asteazkenean, Markosen ebanjelioak, liturgian aldarrikatzen denak, Jesusen eguneroko bizimoduko zehaztasunak ematen dizkigu. Horien bitartez osotu dezakegu handi-handi Jesusek nola antolatzen zituen misiolari-bizitzako egunak. Ezagutza teorikoa lortzeko baino gehiago, ebanjelioko orri hauek Bere moduan bizitzera konbidatzen digute. Ondoko laukiak Jesus nondik mugitzen zen eta zertan jarduten zuen jakiten laguntzen du.

---

1 Honela dio Aita Sortzaileak hitzez hitz: "*Bakoitza gogoetan jarrita, Jainkoak Moisesi esan zizkion hitzak gogoratu behar ditu: Begiratu mendian erakutsi zaizun ereduaren arabera*". *Gogoeta egiten duenak marrazten edo idazten duenak bezala jokatu behar du, jatorrizkoari begirada bat egin eta paperean kopiatzen jarraituz. Beraz, jatorrizkoari begiratuko dio, Jesukristori, eta haren dohainak kopiatzen joango da*" (ANTONIO MARÍA CLARET, "Talento de virtudes": *El Colegial I*, 136. or eta hur.)

EGUNEROKO BIZIMODUKO EGUN BAT JESUSEN BIZITZAN		
TESTUA	INGURUA	JARDUERAK
Mk 1,21-28	Sinagogan	Kafarnaum arrantzale-herria da, eta Galileako aintziraren iparraldean dago. Hango sinagogan, Jesusek irakatsi egien du eta han hasten du gizakia menperatzen duen <i>borroka zuzena gaitzaren espirituarekin</i> . Agintearekin, goitik datorren agintearekin eta ez letratuen moduan, Jesusek gizakia askatu egiten du gaitzetik. Aginte horrek denak txundituta uzten ditu.
Mk 1,29-34	Etxean	Andres eta Simonen etxea <i>intimitate, zerbitzu eta osatzeko</i> lekua da. Han denei aitortzen zaie duintasuna, baita emakume zahar eta gaixoari ere. Eta horrek harritu egiten ditu denak eta berehala zabaltzen da.
Mk 1,35-39	Mortuan	Basamortua <i>otoitz-lekua</i> da. Misiolari-eguna hasi aurretik, Jesus aparteko toki batera doa Abbarekin hitz egiteko. Horrela baieztatuko du hainbat aldiz errepikatuko duena: "Ez naiz ni, nigan bizi den Aitak egiten ditu ekintzak". Harreman horrek poztu egiten du bera eta haren bila dabiltzanen gogoak garbitu nahi ditu.

Antolatzeko eskema horri jarraituta, zuk ere egin ahalegina idazteko zure bizitzako egun normal bat gertatzen den ingurua eta espazio

horietan zure denbora betetzen duten jarduerak. Zu zeu joango zara laukiak betetzen autobiografia antzera.

EGUN BAT NIRE EGUNEROKO BIZIMODUAN	
INGURUA	JARDUERAK

Azkenean atera zeuk ondorioak. Ez ahaztu helburua dela "Jesusi jarraitzea", "haren sentimenduak izatea", ez hainbeste errepikatzea.

Oinarrizko esperientzia honetan sakontzeko lagungarria izango duzu **Tommyren historia** irakurtzea, koaderno honen azken eranskinean (CF.

III. eranskina). USTE DUT ISTORIO HORI EZ DELA ONDO JOSTEN HEMEN... BEGIRATU...

## 6. Bideko zauriak eta haiek sendatzea

Definitzen ez badakizu ere, ondo dakizu zauriak zer diren. Zure bokazioa arrisku handiko lanbidea da. Baliteke orbainen bat izatea honezkero gorputzean edo ariman. Hiru mailatan daude zauriak: fisikoa, psikikoa eta espiritualean. Hirurak dira ezberdinak eta bakoitzaren garrantzia ere ordena horretan mailakatzen da.

Bakoitzak bere prozesua dauka. Horregatik, lehenengo kasuan medikuarengana joango zinateke;

bigarrenen psikologo edo psikiatrarengana, eta hirugarrenean... Jainkoarengana, sarritan bitartekoak erabilia. Horrela esanda ematen du aparteko sailak direla. Baina ez da horrela. Hiru mailak lotuta daude elkarrekin: zauri psikiko batzuk somatizatu egiten dituzu (gezur batek gorri jartzen zaitu); zauri fisiko batzuek psikologia aldatzen dizute (gorreriak animua eragiten dizu eta mesfidati bihurtzen zaitu). Zauri espiritualak (egiten dizkizutenak edo zeuk egindakoak) beste era batekoak dira; hala ere, beste mailei eragiten diete.

Baina garrantzitsua da jakitea zauri batzuk bekatuak eraginak direla eta beste batzuk maitasunetik sortuak. Bekatuak uzten dizkizun zauriak sendatu egin behar dituzu (leialtasunik ezaren mingotsa, gorrotoaren egonezina, damua irain baten ostean, egoismoaren atzetik datorren tristezia...). Bestetik, mistikoek aipatzen duten Jainkoaren maitasunak ere zauritzen du ("Oh maitasunugarra, samur-samur zauritzen duzuna..."). Baina azken horiek garbitzen, sendatzen duten zauriak dira.

Ez geratu lehenengoetan bakarrik pentsatzen. Sendatuko dituzu behar bezala erabiltzen badituzu, beti ere graziarekin, Jainkoaren dohain garbiarekin. Gogoratu Jainkoaren barkamenak errua kentzen duela.

Eta bigarrenak ere sendatu ditzakezu heldutasun espirituala maila handira igota. Mistikoek, esperientzia dutenek, ondo dakite.

Bai lehenengoak sendatzea bai bigarrenak heltzea lagungarri izango duzu begi berriekin begiratzeko beharbada arrastaka daramatzazun zauri horiei guztiei; eta denen artean gorengoari, heriotzari, haren pazko esanahia aurkitu ahal izateko.

Alderdi espiritualean, baita psikikoan ere, eta neurri batean fisikoan, ez duzu beste ezer sendagarriagorik aurkituko benetako maitasuna baino. Printzipio eztabaidaezina da. Hezkuntza filetikoa ezagutzen dutenek badakite posible dela maitasunera apurka apurka sartzea. Heldu gara ba, ebanjelioaren muinera.

### Zauriak sendatzen

Sendatzea prozesu luzea eta korapilotsua izaten da. Pazientzia eta ekina izatea eskatzen du. Eta kanpoko laguntza handia. Kübler-Ross doktoreak, heriotza lasai onartzeaz ari dela, dolua lantzeko prozesuak bost zati dituela dio, berak honela izendatuak: *ukapena*, *haserrea*, *tratu*, *depresioa* eta *onartzea*.

Era batera, zauriak sendatzea heriotza onartzearen oso antzekoa da. Zauri batzuk izan

daitezke berez direna, heriotza bera bezain mingarriak, zailak, larriak... Ondorioz sendatzeko prozesua bost aldi horietan ezarri daiteke.

- 1) Beste ezeren gaitetik, zauriak eragiten dizkizun lehenengo min aztarnen aurrean, lehenengo-lehenengo baztertu egiten duzu: «Ezinezkoa da, –esaten diozu zure buruari– hori ez zait inoiz gertatu». Batzuetan, ez diozu garrantzirik ematen. Lehenengo etapa, isildu eta ukatzea.
- 2) Baina errealitatea hor dago eta ezin da ukatu. Orduan zuri hori gertatu izanaren «errudunen» kontra jartzen zara eta horrela sartzen zara haserrearen aldian. *Erremin eta mendeku pentsamenduetan* sartuko zara.
- 3) Baina errealitatea ekina da eta hor dago; amorrua eta haserrea ez dira batere lagungarriak zure egoera hobetzeko; larritasun, beldur, haserre, errudun... sentimenduak hor daude, auzika eta ziztadaka. Eta pentsatzen duzu: «Ez al dezaket zerbait egin haietatik askatzeko?». Hala ere, jakina, zureak direla eta zure bizitzakoak direla onartu gabe. *Tratu* aldian sartu zara horrela.
- 4) Minak jarraitzen duenez, hazi egiten da eta baita barruko gogoeta ere. Apurka-apurka gero eta argiago ikusten duzu ihes eginez ez duzula ezer lortuko. Orduan, mina zuk jasan dezakezuna baino handiagoa denez, *depresioan* eta *tristezian* sartzen zara. Laugarren aldia da.
- 5) Azkenik, depresio aldia alperrekotzat bizi duzu, eta guztiz kaltegarritzat ere, eta horrela ireki egiten zara, apurka-apurka eta ez beti, ikuspegi berrira, *esperientzia onartzen hasten* zarenean, zure bizitzako zatitzat ikusten, baita gauza ontzat ere. Bosgarren aldia da, eta azkena. Sufrimendu hori onartzen duzu, lehenengo jasangarritzat, gero onargarritzat, azkenik onuragarri eta ontzat. Amaitu da prozesua.

Lehen gainezka eginda zeunden; orain aske sentitzen zara, berri, zure burua onartzeko eta horrekin pozik bizitzeko gai, eta ondorioz, besteen zerbitzura jartzeko gai.

Gauza batez jabetzea komeni da puntu hau itxi baino lehen: aldiak gutxi gorabeherako kontzeptualak baino ez dira, ez deskribapen zehatzak. Nola izango dira deskribapen zehatzak giza prozesu korapilotsua izanik? Baina barruko borroka ulertzen lagunduko dizute gogorapen mingarriari aurre egitean, eta onartu bai edo ez eztabaidaren aurrean, azkenean bakea lortu arte. Aldiak sarritan nahastu egiten dira, aurreratu edo atzeratu; baina borroka argitzen jarraitzen dute eta han eztabaidatzen denari laguntzeko onak izango dira.

Konparatu al daiteke gogorapen mingarri bat onartzea heriotza onartzearekin? Bai, noski. Eta komeni da horretan indar egitea arinkerian ez erortzeko, batez ere beste batzuk tartean direnean, eta borroka txikitzeko. Baina zuk ere zure buruarekin ulerkorra izaten ikasi behar duzu.

#### ARIKETA: HIRU ZAURI

Irakurri astiro eta boz goran Miguel Hernández poeta espainiarraren poesia eder hau. Errepikatu hiru-lau aldiz...

##### HIRU ZAUIREKIN IRITSI ZEN

Hiru zaurirekin iritsi zen,  
maitasunarena,  
heriotzarena,  
bizitzarena.

Hiru zaurirekin dator,  
bizitzarena,  
maitasunarena,  
heriotzarena.

Hiru zaurirekin ni,  
heriotzarena,  
bizitzarena,  
maitasunarena:



- Saiatu ezagutzen zure maitasun zauria... heriotzarena... bizitzarena...
- Begiratu berriz aurreko atala, "Zauriak sendatzen", konparatu hango oharrekin eta atera zeure ondorioak.
- Egin otoitz haiekin gurutzean zaurituta dagoen Jaunaren aurrean.

## 7. Askatasuna eta mendekotasuna

Askatasuna bizimodu bat da. Libre izateko ezinbesteko baldintza da hitz horren esanahia behar den moduan ulertzea; gero horren arabera bizi beharko da. Batzuetan hitza erabiltzen da beste esanahi batekin, praktikan gutxienez. Librea naiz – esaten da– nahi dudana egiten dudanean. Hala ere, gurari batzuek menpeko bihurtzen gaituzte. Kasu horretan ez gara askatasunaz ari, mendekotasunaz baino (kontrakoa, hain zuzen ere). Gehien gustatzen zaionari jarraituta jokatzeko duen bizioduna ez da librea, esklaboa da. Gure artean, gizon zaharrak bere 'baloreak' ezarri nahi ditu. Horregatik Paulok behin eta berriro esaten du gugan 'gizon zaharra' hil egin

behar dela, gure areriorik txarrena baita. Bere burua 'nahi duelako' hiltzen duenak ez du askatasunez jokatzeko; esklabo bihurtzen duen barruko indar batek eraginda jokatzeko du, heriotzara eraman arte. Librea da bidean sortzen zaizkion trabak gainditzen dituen ongia egiteko, eta ni askatu horretatik jokatzeko duena.

Zer bide dago zure askatasuna handitzeko? Nola frogatu dezakezu zure askatasunaren beste erabileraren bat? *Quid Prodest* esperientziak zure askatasunari bi muga jartzea proposatzen dizu. Lehenengoa da zer den *komenigarria*. Eta bigarrena da zer den *elkartea onbideratzeko*. Bietan erantzuten zaio funtsezko galdera bati: Zertarako balio du beti nahi duzuna egitea azkenean ase gabe eta esklabo uzten bazaitu? Astiro ikusiko ditugu.

- **Ikasi komeni dena aukeratzeko.** Kontsumo-gizarteak indar egiten du erabakiak hartu ditzazun zure gustu edo zaletasunak asetzeko. Hori hala da norbaitek sari hori bilatzen duenean erraza delako hura engainatzea. Sortu ezazu beste pertsona batzuk esklabo bihurtzen dituen beharrez bat eta haiekin probetxua aterako duzu, negozio onak eginez. Denok erosi izan ditugu behar ez ditugun gauzak, une horretan, propagandaren eragin gorrarekin, bultzada batek eraginda erostea erabaki dugulako. Jokabide hori horretan geratuko balitz, ez litzateke hain kaltegarria izango. Arazoa da sari ugariak estilo bat sortzen dutela, pertsona osoa bere beharrez inguruan jartzen dutena beragandik irteten eragotzita. Apurka-apurka apetatsua egiten doa erabakiak hartzeko orduan.

Koaderno honetan behin baino gehiagotan esan da Kristoren deiak zuek irteko eskatzen duela. Hori bera gertatzen da edozein giza mailatan: balore batzuk bizitzeko, gizartearen konpromisoa hartzeko, zerbitzu bat emateko, edo besterik ezean aukera bati eusteko, ezinbestekoa da sarietan oinarritutako estiloa aldatzea eta beste arazoari sakonago batzuk bilatzea zure erabakiak oinarritzeko. Gauzei ematen diezun balioarekin zerikusia duten arazoak. *Quid Prodest*-ak beste urrats bat egitera bideratzen zaitu, "*gustukoa dut*" pentsatu eta gero "*komenigarria da*" erabakitzea. Urrats hori aurrerapen handia da zure askatasun-gaitasunean. Arrazoiak aukeratzeko duzu, jakinik nolako onura dakarkizun, eta ez bultzadak eraginda bakarrik. Bide hori aukeratzeko baduzu estilo bat sortzen joango zara, bere buruaren jabe denarena, ongia bilatzen duela, gauzak egiteko arazoak dituela



eta, horregatik, egonkorrago eutsiko die bere erabakiei.

Korintoarren elkarteko jokabide batzuk ikusita, san Paulok irizpide hori eskaintzen du agerian, kristauarentzat bizi-estilo bat sortuz:

*"Dena zilegi dut", dio zenbaitek; baina ez da dena komenigarri. Dena zilegi dut bai, baina ni ez nau ezerk menpeko egingo (1 Kor 6, 12).*

- **Ikasi eraikitzen duena aukeratzeko.** Zure askatasuna handitzeko proposatutako bigarren bidea elkartaren onerako dena aukeratzeko da. Quid Prodest-ak berriz ere bideratzen zaitu *"nahi dut"* esan eta *"elkartea eraikitzen dut"* pentsatzera. Gutun berean, aurrerago, san Paulok beste esaldi labur bat proposatzen du askatasunaz: *Gutziz libre naizen arren, guztien esklabo egin naiz, ahalik jende gehien Kristorentzat irabazteko... Ahul direnekin ahul egin naiz ahulak irabazteko. Guztiengana ahalik eta gehien egokitzen saiatu naiz, nolabait batzuen batzuk salbatzeko. Eta guztia berri onagatik egiten dut, berri on horretan neuk ere parte izan dezadan.* (1 Kor 9, 19.22-23). Helburua da zure joera egoistak gaitzetea besteengana irekitzeko, haien premia zehatzetan. Eskura dituzun elkarte inguruetan saio txikiak egin daitezke. Adibidez, elkartean, telebistaren kontrola *"irabazi"* barik, zure nebarrek gustuko duten saioa haiekin batera ikusi. Epe luzera, jarrera hori onuragarriagoa izango da orain irabaztea baino, zuretzat esangura

garrantzitsua daukalako. Beste adibide bat, etxean edo zure ikastetxean, egin isilpeko zerbitzuak, hau da, egin gauza onak baina inork igarri gabe; poz handia hartuko duzu, benetan, libreago sentitzen denari dagokiona. Zure denboratik zati bat ematen duzunean, adibidez, besteei pazientzia handiz irakasteko, barrutik hazten denaren poza sentituko duzu. Jesusen gonbitea askatasun handiagorako argia da: *Ez pilatu mundu honetan zeuen aberastasunak, sutsak eta herdoilak jaten baitituzte hemen, eta lapurrak etortzen harrapatzera. Pilatu zeruan zeuen aberastasunak, han ez baititu ez sutsak, ez herdoilak jaten, ezta lapurrak harrapatzera joaten ere. Zeren, zure aberastasuna non, zure bihotza han.* (Mt 6, 19-20).

Zure askatasuna horrela mugatzen duzunean, kontrakoa badirudi ere, handitu egiten da; izan ere, komeni den eta eraikitzen duen horrek lagundu egiten dizu hazten eta besteei hazten laguntzen die.

**ARIKETA: KOMENIGARRIA ETA ONURAGARRIA**

Zure ordutegiaren arabera (gogoratu lehenengo koadernoan landu zenuela) egin zerranda bikoitza, eguneroko bizitzako egun bat aztertuz:

- Esan zer komeni zaizun eta zer ez.
- Idatzi zer den onuragarria besteentzat eta zer ez.
- Atera ondorioak. Hitz egizu laguntzailearekin.

## 8. Lectio Divina-rako lorratzak

Sutegia esperientziak beti behar ditu gidari liturgia eta *Lectio divina* ariketa. Barruan entzun behar duzu: *"Gaur haren ahotsa entzuten ez baduzue, ez bihotza gogortu"*. Hitz entzuteko barruko berriketa isildu behar duzu. Aita Sebastián Moore beneditarrak dio: *"Jainkoak esaten diguna entzuteko, guztiz eten behar duzu buruko zarata. Eta hori uste duzun baino errazagoa da; bakarrik konturatu behar duzu zure buruarekin hitz egiten duzunean bi bihurtzen zarela,*

*zeu eta zu zeu, eta hori ezin da egia izan; beraz, utzi behar duzu "zu zeure buruarekin" barik "zeu" bihurtzen, eta hor dago, eta hasieratik hor egon da, Jainkoa. Ez zara izaki bikoitza: maitasunak bat izanarazten dizu. Hasieran harrigarri samarra da, baina arnasa pare bat aldiz sakon hartu eta esan dezakezu: "Oso ondo, Jauna, hemen nauzu. Orain zeuk mugitu"*. Ikusten duzunez, Hitzak, liturgian eta lectio divinan jasota, zure nortasuna eraikitzen eramango zaitu.

<b>Igandea Urtarrilak 9</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 42,1-4.6-7</li> <li>• Eg 10,34-38</li> <li>• Mt 3,13-17</li> </ul>	<b>Jaunaren Bataioaren jaia</b>	Ondo dago Jainkoak nahi duen guztia betetzea. Argumentu horrekin konbentzitu du Jesusek Joan, bataiatzen ausartzeko. Jainkoak nahi duena egiten duzunean, gozamina eta maitasuna sentitzen dituzu. Maitatua sentitzen ez bazara,... ausartu Jainkoak bihotzera esaten dizuna egiten.
<b>Astelehena Urtarrilak 10</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 1,1-6</li> <li>• Mk 1,14-20</li> </ul>		Jesusek, hitz egin eta gero lehenengo jarraitzaileei deitu die berarekin joateko. Haren hitz indartsuak aukerak erakusten ditu eta mugiarazteko indarra dauka. Bidean jartzeko gai da, zure lekutik mugiarazteko, zalantza eragiteko.

<b>Asteartea</b> <b>Urtarrilak 11</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 2,5-12</li> <li>• Mk 1,21-28</li> </ul>		Erreparatu gaur Jesusen aginteari. Txunditu egiten du bere irakatsiekin eta gaitzaren gainean boterea erakusten du. Zuk baino gehiago daki, jar zaitez haren ondoan ahalik arinen. Indartsu izango zara zure ahultasunean.
<b>Asteazkena</b> <b>Urtarrilak 12</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 2,14-18</li> <li>• Mk 1,29-39</li> </ul>		Jesusek bazekien ekintzatik otoitzera aldatzen, zeregin apostolikotik Abbarekin bat egitera. "Bai" eta "ez" esaten zekien. Lehentasunak bereizten zituen eta erabakiak hartzen. "Bere arimaren kapitaina" zen. Ikasi harengandik antolatzen.
<b>Osteguna</b> <b>Urtarrilak 13</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 3,7-14</li> <li>• Mk 1,40-45</li> </ul>		"Errukia izatea", "eskua ematea" eta "ukitzea": Hiru aditzok ondo adierazten dute nola sendatzen zuen Jesusek. Legenardunak osatzea lortu zuen, berari begiratzen utzita, eskura jarri eta ukitzen utzita... Nola egingo zenuke zuk?
<b>Ostirala</b> <b>Urtarrilak 14</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 4,1-5.11</li> <li>• Mk 2,1-12</li> </ul>		Instalazioak dakarren paralisitik irteteko, beste batzuek eramaten uztera ausartu behar da, ustekabea saiatu, gizartearen iritziaren tirania gainditu, Jesusengana hurbiltzeko modua sormenez bilatu. Kontuz lotsa eta giza errespetuarekin.
<b>Larunbata</b> <b>Urtarrilak 15</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 4,12-16</li> <li>• Mk 2,13-17</li> </ul>		Mateok ez du birritan pentsatzen. Maisuaren deia igarri du eta, berehala jarraitu ez ezik, jaia antolatu du ospatzeko. Ez pentsatu asko, zoaz Jesusekin. Ez ulertzen saiatu, fidatu Harekin. Dena jai bihurtuko da.
<b>Igandea</b> <b>Urtarrilak 16</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 49,3.5-6</li> <li>• 1 Kor 1,1-3</li> <li>• Jn 1,29-34</li> </ul>	<b>Urtean zeharreko aldiko II igandea(A)</b>	Joan Bataiatzailearen atzamar erakusle izatera deitua zaude, Jesus, Bildots santua, non dagoen besteei erakusteko. Ondo ezagutzen zaituztenek norantz bideratzen zaituzten begiratu behar duzu. Zertarako duzu Jesusen jarraitzailea zarela esatea lehenago ikasle zarela onartu ezik, gero lekuko izateko?
<b>Astelehena</b> <b>Urtarrilak 17</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 5,1-10</li> <li>• Mk 2,18-22</li> </ul>	<b>San Antonio Abataren memoria. M. Antonia Paris beneragarria. (Egutegia, 27-32 or.)</b>	Jesusek aurrean bihotz apal eta harreragilearekin jarri behar duzu. Berak ez du zugana egokitu behar. Zeuk utzi behar diozu egiten. Berak dakarren ardo berria ezin da zure manien zahagi zaharretan gorde, zure aurreiritzi, erosotasun, buru estuan.
<b>Asteartea</b> <b>Urtarrilak 18</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 6,10-20</li> <li>• Mk 2,23-28</li> </ul>		Beste batzuekin bizi ahal izateko haiekin ados jarri behar duzu. Zure hitzarmenak bete beharreko lege bihurtzen dira. Baina haien gainetik eta azpitik, pertsona jarri behar duzu beti. Jesusek beti erakusten du Jainkoa maitasuna dela. Eta, lehenengo, Jainkoak pertsona jartzen du beti, ez legea.
<b>Asteazkena</b> <b>Urtarrilak 19</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 7,1-3.15-17</li> <li>• Mk 3,1-6</li> </ul>		"Besoa luzatzen dut"... besoa nagiak, egoismoak, indarkeriak guztiz geldiarazita egon daiteke. Zertarako balio du besoa edukitzeak paralitiko edukiz gero, eta zerbitzatzeko, banatzeko, laztantzeko... balio ez badu?
<b>Osteguna</b> <b>Urtarrilak 20</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 7,25-8,6</li> <li>• Mk 3,7-12</li> </ul>		Jesus iman guztiz indartsua da, asko eta asko erakarri eta eramaten dituena. Baina erostezina da eta ez du onartzen manipulaziorik. Bilatu Jesus, ezagutu hobeto, maita ezazu gartsuago, gurtu ezazu esanez "Zu zara Jainkoaren Semea"... eta ez utzi huts egiten dizunean!
<b>Ostirala</b> <b>Urtarrilak 21</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 8, 6-13</li> <li>• Mk 3,13-19</li> </ul>	<b>Santa Ines birjina eta martiriaren memoria.</b>	"Harekin egoteko" eta "boterearekin bidaliak izateko". Horretarako deitu zuen Jesusek. Horretarako jarraitzen du deitzen. Horretarako deitzen dizu zuri. Horretarako deitzen dizu gaur... Zenbat aldiz esan behar da horixe dela zure bizitzako arkuaren giltza?
<b>Larunbata</b> <b>Urtarrilak 22</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 9,2-3.11-14</li> <li>• Mk 3,20-21</li> </ul>		Jan gabe eta ingurukoek ulertu gabe. Gaurkoaren moduko ebanjelio laburrean, ulertuko dituzu ebanjelio lanik gogorrenak, gordinenak (pobrezia eta kontrakoak). Begiratu, otoitz egin eta... ez hainbeste kexatu!

<b>Igandea</b> <b>Urtarrilak 23</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 8,23b-9,3</li> <li>• 1 Kor 1,10-13.17</li> <li>• Mt 4,12-23</li> </ul>	<b>Urtean</b> <b>zeharreko</b> <b>aldiko III</b> <b>igandea(A)</b>	Jesusen predikuaen hasiera guztiz garrantzitsua da: "Konbertitu, zeruko erreinua hurbil dago eta". Erreinua hain hurbil egotea da aldaketa posible egiten duena (hain zaila, hain gogorra...). Ez da Jaunaren jarraitzailea konbertitu ez dena. Fedea aldaketaren emaitza da beti. Nahiz eta pertsonak berak azaltzen jakin ez.
<b>Astelehena</b> <b>Urtarrilak 24</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 9,15.24-28</li> <li>• Mk 3,22-30</li> </ul>	<b>San Frantzisko</b> <b>Saleskoaren</b> <b>memoria,</b> <b>gotzain eta</b> <b>Elizako</b> <b>doktorea.</b>	Etsai gaiztoaren estrategietako bat nahastea da: txarra ontzat hartu eta alderantziz. Gezurretik egiara jauzia egiteko Jesusekin fidatu behar da, haren Espirituari eramaten utzi. Ez zara Jesusen epailea. Baina ikasle izan zaitezke, nahi baduzu.
<b>Asteartea</b> <b>Urtarrilak 25</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eg 22,3-16</li> <li>• Mk 16,15-18</li> </ul>	<b>San Pauloren</b> <b>konbertsioaren</b> <b>jai.</b> ( <i>Egutegia,</i> <i>33-38 or.</i> )	Jar zaitez berriro Jesusen begiradapean, inguruan dabil eta, atzamarraz zuri begira diotsula: "Zu zara nire ama eta nire neba. Zuk betetzen duzu Jainkoaren borondatea". Eta utzi zugar betetzen berak dioena, Mariak bezala.
<b>Asteazkena</b> <b>Urtarrilak 26</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 10, 11-18</li> <li>• Mk 4,1-20</li> </ul>	<b>Timoteo eta</b> <b>Tito santuen</b> <b>memoria</b>	Jesusen parabolak itsaso gaina bezalakoak dira. Urak distira egiten du eguzkipean, baina begirada ezin da sakonean sartu. Denei hitz egiten die berak, hitz apalekin, baina bizitzan beragandik urrun daudenek ez dute ulertzen.
<b>Osteguna</b> <b>Urtarrilak 27</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 10,19-25</li> <li>• Mk 4,21-28</li> </ul>		Zorionekoa zara bataioko unetik. Argia duzu. Ez zaude ilunetan. Jar ezazu argia kanpoan –argitu zure harremanak-. Jar ezazu argia barruan –argitu zure iritziak-. Zertarako duzu argia edukitzea arduragabetasunaren lakariaren azpian gordetzen baduzu edo zure ahazturen ohearen azpian?
<b>Ostirala</b> <b>Urtarrilak 28</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 10,32-39</li> <li>• Mk 4,26-34</li> </ul>	<b>Santo Tomas</b> <b>Aquinoko</b> <b>Elizako</b> <b>doktorearen</b> <b>memoria.</b>	Sutegian "hazirik txikiena" ereiten ari zara. Edozerk hondatu dezake. Baina pentsatu ezineko indarra dauka. Utzi hazten. Zertarako duzu Hitzaren hazia edukitzea zure bizitzan ereiten ez baduzu, ez duela merezi iritzi diozulako?
<b>Larunbata</b> <b>Urtarrilak 29</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 11,1-2.8-19</li> <li>• Mk 4,35-40</li> </ul>		Jesusek beldurraren urakanari eta ikararen olatuei isiltzeko agintzen die. Isiltasuna agintzen die. Utzi Jesusi berari, bere agintearen indarrak, isiltzeko agintzen zure gorabeherak, haserreak, erresumina, irainak, kexuak... Utzi baketan jar zaitzan.
<b>Igandea</b> <b>Urtarrilak 30</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• So 2,3;3,12-13</li> <li>• 1 Kor 1,26-31</li> <li>• Mt 5,1-12a</li> </ul>	<b>Urtean</b> <b>zeharreko</b> <b>aldiko IV</b> <b>igandea(A)</b>	Teoria badakizu: Pobre eta barea izatea, negar egiten jakitea, justizia-gose eta –egarria izatea, bihotz errukitsu eta garbikoa izatea, bakezale izatea... asetasun eta poztasun zoragarriaren eragileak dira. Baina prezioa daukate: jazarria izatea; eta saria: Goikoaren zorionekotasunean parte hartzea. Badakizu eta bizi egin dezakezu.
<b>Astelehena</b> <b>Urtarrilak 31</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 11,32-40</li> <li>• Mk 5,1-20</li> </ul>	<b>San Juan Bosco</b> <b>artzainaren</b> <b>memoria.</b>	Nork ez du askatua izan behar sentitzen dituen joera oker pilotik: harrokeria, sentsualitatea, handinahia, inbidia, egoismoa, indarkeria, intolerantzia, zekenkeria, beldurra? Jesusek min ematen dizun gaitzetik askatu nahi zaitu, uzten badiozu. Benetan salbatua izan nahi duzu? Errepikatu seriotasun osoz eskaria: «libra gaitzazu gaitzetik»
<b>Asteartea</b> <b>Otsailak 1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 12,1-4</li> <li>• Mk 5,21-45</li> </ul>	<b>Aita Claret</b> <b>kontrako</b> <b>erasoa</b> <b>Holguinen.</b> <i>(Egutegia, 41-46 or.)</i>	Bai Jairo bai odol-jarioak dituen emakume gaixoa Jesusen bila joan ziren, agerian edo ezkutuan. Haien fedea ekarri zuen bilatu zuten miraria. Zein fede-ardatz igartzen duzu pertsonaia biengan? Irakurri testua arretaz... Aurkitu zerbait berri. Erabili ulertzen duzuna.
<b>Asteazkena</b> <b>Otsailak 2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Mt 3,1-4</li> <li>• Heb 2,14-18</li> <li>• Lk 2,24-40</li> </ul>	<b>Jaunaren</b> <b>aurkezpenaren</b> <b>jai</b>	Simeonen leloa hau izan daiteke: "Bizi ikusteko". Bazekien bizitzan zehar Mesias izatera helduko zela. Itxarotea zen haren eguneroko ogia, biderako mana. Haurra eramaten diotenean, agindua beteta sentitzen du haur txiki harengan. Onartuko du Israelgo herriak? Onartuko dute haren argia nazioek? Zuk onartuko duzu?

<b>Osteguna Otsailak 3</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 12,18-19.21-24</li> <li>• Mk 6,7-13</li> </ul>		Hamabiak pobrezian baina agintez bidali zituzten espiritu zikinengana. Ekipaje beharrezko bakarra da, ezinbestekoa. Zuk ere oinarritzakoa lortu ezazu: gaitzari ondo uko egiteko gaitasuna eta ongia ondo egiteko. (Errepikapena ez dago sobran).
<b>Ostirala Otsailak 4</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 13,1-8</li> <li>• Mk 6,14-29</li> </ul>	<b>Aita Jaime Clotet beneragarria, sortzaile laguna. (Egutegia, 47-54 or.)</b>	Herodes gizaki "anti-Quid Prodest" en eredu da. Itxuraz indartsua eta boteretsua da; egiaz oso ahula da, apetatsua eta moldagarria. Biguntasunak erabakiak hartzeko gaitasuna kentzen du. Jainkoaz hitz egiten duen profetaren ahotsa suntsitu egiten du beti.
<b>Larunbata Otsailak 5</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 13,15-17.20-21</li> <li>• Mk 6,30-34</li> </ul>	<b>Santa Ageda birjina eta martiriaren memoria.</b>	Jesusekin bakarka leku lasai batean egotea atsedean hartzeko, ona da. Jendetza artaldearen moduan artzainik gabe dabilenean errukia sentitzea ere ona da. Gauza biak batera onena. Noiz bat eta noiz bestea egin bereiztea Maisuari entzunda hartu beharreko erabakia da.
<b>Igandea Otsailak 6</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 58,7-10</li> <li>• 1 Kor 2,1-5</li> <li>• Mt 5,13-16</li> </ul>	<b>Urtean zeharreko aldiko V igandea(A) San Paulo Miki eta martiri lagunak.</b>	Jesusek ez dio: "Zuek gatza eta argia <i>izan behar duzue...</i> " baizik eta "zuek <i>zarete</i> gatza eta argia...". Zuk uste duzuna baino gehiago zara. Ez daukazuna ez duzu behar. Nahikoa da ez ezkutatzea zure konplexu, beldur edo erosotasunen azpian. Erre eta argia emateko eginga zaude.
<b>Astlehena Otsailak 7</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 1,1-19</li> <li>• Mk 6,53-56</li> </ul>		"Jesus ukitzen zutenak sendatu egiten ziren". Nola itzuliko zenuke zuk "Jesus ukitze" hori? Gogoratzen duzu "Jesusen presentziaren bat" zu sendatu zaituena? Nola berreskuratu eta gaur baliagarri egin? Jesus hurbil edukitzeak erraztu egiten dizu sendatzeko prozesua. Quid Prodest-en giroa da.
<b>Asteartea Otsailak 8</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 1,20-2,4a</li> <li>• Mk 7,1-13</li> </ul>		Jesusek heldutasunera bultzatzen duenean, ez du esan nahi kosmetika, itxura eta azakeria kontua denik. Ez du kanpoko alde kentzen, jakina, izan ere maitasunak osotasunean izan behar du. Baina muina bihotzaren konbertsioa da; eta hori ez da intimista, zeharkakoa baino, muina, ezinbestekoa.
<b>Asteazkena Otsailak 9</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 2,4b-9.15.17</li> <li>• Mk 7,14-23</li> </ul>		Batzuetan gaizkia kanpotik datorrela esaten badizute ere, pertsona bakoitza, berez da gaizkia egiteko lantegi bat. Horregatik erreparatu behar diozu zure "barruan" gertatzen denari eta, beharbada, besteei min egin eta zuri ere kalte eragiten dizu. Hori kontrolatzeko, lehenengo apaltasunez eta egiaz ezagutu behar da.
<b>Osteguna Otsailak 10</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 2,18-25</li> <li>• Mk 7,24-30</li> </ul>	<b>Santa Eskolastika birjinaren memoria.</b>	Ebanjelioko emakumea san Frantzisko Saleskoak "konformitate onekoa" zeritzenen taldekoa zen. Baina kontuz. Jesusen aurrean ez da asko eskatzekoa, bai osterakina. Ez da sentibera, baina bai konfiantzakoa. Ez du etsitzen itxurazko ezezkoagatik, borroka egiten du. Ebanjelioko emakume handietako bat da.
<b>Ostirala Otsailak 11</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 3,1-8</li> <li>• Mk 7,31-37</li> </ul>	<b>Gure konstituzioak onartzea. (Egutegia, 55-61 or.)</b>	Ez du ez entzun ez hitz egiten. Gizon hori komunikaziorik ezaren adierazlea zen. Jesusek gogor jokatu beharko du terapian. Bakartu, atzamarrekin ukitu, ahoko listua eman, zerura begira hasperen egin eta, azkenean, esan: Ireki. Eta sendatu ostean isilik egoteko konbitea. Dena egiten du ondo. Utzi zurekin ere egiten.
<b>Larunbata Otsailak 12</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 3,9-24</li> <li>• Mk 8,1-10</li> </ul>		"Zenbat ogi daukazue?". Arazo larriren bat dagoen guztietan Jesusek eskuzabal eta jarrera emankorra eskatzen dizkizu. Alderantziz dela pentsa badaiteke ere, irtenbideak normalean bitartekariak hartzen duten jarreratik datoz. Zuretik zenbat zaude Kristoren eskuetan jartzeko prest?
<b>Igandea Otsailak 13</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 15,16-21</li> <li>• 1 Kor 2,6-10</li> <li>• Mt 5,17-37</li> </ul>	<b>Urtean zeharreko aldiko VI igandea(A)</b>	"Ni baino hobeak ez bazarete..." Ez da aholku bat. Jesusen agindu bat da. Hari jarraitzeak esan nahi du hobetzeko dinamikan, santutasunerako tentsioan sartzea. Tentsio horren helburua ez da exhibizionismoa, Jainkoaren eta hurkoarenganako maitasuna benetakoa izatea baino. Ez geratu tartekoekin.

<b>Astelehena Otsailak 14</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 4,1-15.25</li> <li>• Mk 8,11-13</li> </ul>	<b>Cirilo eta Metodio santuen memoria.</b>	Ageriko frogak eskatzea Jesusi azterketa egitea da, hura tentatzea. Jesusen aurrean konfiantzak baino ez du balio, hari sinestea. Itxaron harekin. Fidatu. Keinu bakarra bere bizitza da, apaltasunez begiratzen duzuna hari jarraitzeko. Zure konfiantza dagoela beti ageriko frogan gainetik eta harago.
<b>Asteartea Otsailak 15</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 6,5-8; 7,1-5.10</li> <li>• Mk 8,14-21</li> </ul>		Jesus haserretu egiten da bere ikasleek ez dituztelako bere hitzak ulertzen, itsu daudelako. Aurrean daukate erreinuaren agiri asko, baina ezin dute horrek dakarren berritasunik ikusi. Eskatu Espiritu Santuari begiak emateko begiratzeko eta ikusteko, entzuteko eta ulertzeko.
<b>Asteazkena Otsailak 16</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 8,6-13.20-22</li> <li>• Mk 8,22-26</li> </ul>		Itsua sendatzea prototipoa da. Itsua dena ilun ikusten duena da – pesimista ere izan daiteke–; edo aurrean daukanaz jabetzen ez dena –axolagabea izan daiteke–. Jesusek, oliadura berezi batez, apurka apurka ikusmena berreskuratzen uzten dio. Eskatu Jesusi gaur argia eta itxaropena, itsutasuna sendatzeko.
<b>Osteguna Otsailak 17</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 9,1-13</li> <li>• Mk 8,27-33</li> </ul>		Ez da erraza Jesusi aitortzea proba edo arazo baten aurrean. Tentazioa da Kristori gurutzerik gabe jarraitzea. Baina gurutzea ez ezereen helmuga. Zertarako balio du jarraipenaren gogortasuna jasatea pizkundearen esperientziara jauzi eginarazten badizu? Errepikatu: “Sinisten dut, Jesus gurutziltzatua eta... biztua”.
<b>Ostirala Otsailak 18</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Has 11,1-9</li> <li>• Mk 8,34-39</li> </ul>		Gaur Quid Prodest ebanjelioa aldarrikatzen da. Esperientzia bat bizi duzu ardatz horren inguruan. Eskatu indar guztiz eta nekatu gabe “zertarako dut...?” galdera jauzia eginarazi eta Kristo dagoen lekurantz bultzatuko zaituen indargile izan dadin, bizitzako bide hori ez desbideratu ez geratu gabe.
<b>Larunbata Otsailak 19</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Heb 11,1-7</li> <li>• Mk 9,1-12</li> </ul>		Argi-izpi batez, Jesusek adierazten du bera nor den, eta zer zentzu daukaten bere bizitzak, heriotzak eta pizkundeak. Zure otoitzaren ikusmiratik utzi Jainkoaren ahotsari behin eta berriro esaten: “Hau da nire seme maitea, entzun egiozue”. Begiratu egiozu, entzun... ez loak hartu!
<b>Igandea Otsailak 20</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lb 19,1-2.17-18</li> <li>• 1 Kor 3,16-23</li> <li>• Mt 5,38-48</li> </ul>	<b>Urtean zeharreko aldiko VII igandea(A)</b>	Jesusekin ados egongo zara edo ez. Baina ez zaitez ausartu teoriko inozotzat hartzen. Elkarbizitzan bakea eraikitzeko modu bakarra min egiteraino maitatzea da. Aita Claretek bere hitzekin honela itzultzen zuen: “Maitatzea egitea eta sufritzea da”. Maitasunarentzat kaltegarriena erromantizismora mugatzea da.
<b>Astelehena Otsailak 21</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 1,1-10</li> <li>• Mk 9,13-28</li> </ul>		“Dena da posible fedea daukanarentzat”. Den-dena. Gaizkiaren sustrairik sakonen eta bortitzenak ere indargabetu egin daitezke fedearen boterearekin. Konfiantza, pazientzia, tinkotasun, apaltasun, obedienciaz jantzitako fedearrekin. Ez ezazu inoiz galdutzat eman zure burua.
<b>Asteartea Otsailak 22</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• 1 P 5,1-4</li> <li>• Mt 16,13-19</li> </ul>	<b>San Pedroren katedraren jaia.</b>	Jesusen elkarte, Eliza, zeure elkarte, fedearen harri biziak eraikitzen da, Kristo barrutik ezagututa. Fede hori da Aitaren agerkunde. Zertarako dira gure elkarteak fededunik ez badaukate? Zertarako dira gure giza taldeak haiei eusteko lekukorik ez badago?
<b>Asteazkena Otsailak 23</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 4,12-22</li> <li>• Mk 9,37-39</li> </ul>	<b>San Polikarpo gotzain eta martiriaren memoria.</b>	Moralean bereizten dira ongia, gaizkia eta indiferentzia. Jarraitzaileen artean ez da horrela: edo Harekin zaude edo Haren kontra. Ez dago neutraltasunik. Oinarrizkoena da Harekin egotea ongia egiten –jakin ez arren norengatik egiten duzun– eta inori egitea galarazi gabe –“gure arteko” izan ez arren–.
<b>Osteguna Otsailak 24</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 5,1-10</li> <li>• Mk 9,40-49</li> </ul>	<b>Aita Nicolás García, Nagusi Jenerala (Egutegia, 63-69 or.)</b>	Zertarako duzu askatasuna edo jakituria, horrekin beste batzuek erorarazi edo Jesusengandik aldentzen badituzu? Zertarako duzu eskuak edo oinak edukitzea edo ondo ikustea... horiekin inori mesederik egiten ez badiozu edo zeure buruari kalte egiten badiozu? Nola biziko zara sua itzaltzen ez den lekuan?

<b>Ostirala Otsailak 25</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 6, 5,17</li> <li>• Mk 10,1-12</li> </ul>	<b>Aita Sortzailearen beatifikazioa. (Egutegia, 71- 76 or.)</b>	Leialtasuna izan daiteke lortzeko helbururik zailenetakoa. Bibliak etengabe erakusten digu pertsona batek, bere borondate hutsez, ezin dela leiala izan. Horretarako, Jainkoak bihotza aldatu behar dio eta haragizko bihotza eman. Horrek balio du gizakiaren arlo guztietarako, maitasun garbia eskatzen duen guztirako.
<b>Larunbata Otsailak 26</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 17,1-13</li> <li>• Mk 10,13-16</li> </ul>		Ume bihurtzea ezinbestekoa da Erreinuan hazteko. Baina ez haurtzarora idealizatu. Jesusek jakituriaz proposatu du. Badaki berak haurtzarora ikasketa handietarako aldirik egokiena dela. Berak ere hala bizi izan zuen. Antropologo eta pedagogoen ere hori berresten dute. Haurtzarora eta ikasletza, zentzu horretan, sinonimoak dira.
<b>Igandea Otsailak 27</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Is 49,14-15</li> <li>• 1 Kor 4,1-5</li> <li>• Mt 6,24-34</li> </ul>	<b>Urtean zeharreko aldiko VIII igandea(A)</b>	Igande honetako ebanjelioa konbite zoragarria da Jainkoaren konfiantza izateko eta beragan egoten uzteko: Zertarako kezkatu behar duzu Jainkoak bere eskuetan eramaten bazaitu? Zertarako duzu larritzea Bera bada zure zaindaria eta probidentzia? Zertarako duzu Bera zure bihotzaren erdian ez jartzea jakinik beste guztiek huts egingo dizutela...?
<b>Astelehena Otsailak 28</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 17,20-28</li> <li>• Mk 10,17-27</li> </ul>		Zertarako duzu aberatsa izatea Jesus triste jartzen baduzu? Zertarako duzu ona eta adeitsua izatea ematen ez bazara? Zertarako duzu Maisuaren aurrean jartzea, haren esana egiteko prest ez bazaude? Zertarako duzu azkeneraino ez heltzea? Azken finean, ezer <i>ez arriskatzea</i> da har dezakezun <i>arriskurik handiena</i> .
<b>Asteartea Martxoak 1</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 35,1-15</li> <li>• Mk 10,28-31</li> </ul>		Zer utzi zuen Pedrok Jesusi jarraitzeko? Arrantzale ontzi zahar bat! Beste batzuek gauza askoz garrantzitsuagoak utzi dituzte! Muina ez da Kristorengatik “zer” uzten den, “nolako espirituarekin” egiten den baino. Ez al dizu Jesusek eskatzen gauza txikitxo bat uzteko... aurrera egiten uzten ez dizuna?
<b>Asteazkena Martxoak 2</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 36, 1-2a.5-6.13-19</li> <li>• Mk 10,32-45</li> </ul>	<b>Aita Martin Alsina, Nagusi Jenerala. (Egutegia, 79- 84 or.)</b>	Gai zara Jesusek edan behar izan zuen kaliza edateko? Gai zara Jesusi berriro esateko, hala eta guztiz ere, berarekin joan nahi duzula Jerusalemara? Gai zara hori esateko zure zortea bestearekin konparatu gabe? Gai zara hori egiteko ekintzen bitartez eta apaltasunez zerbitzatuz?
<b>Osteguna Martxoak 3</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 45,15-26</li> <li>• Mk 10,46-52</li> </ul>		Oso altu hitz egitea edukaziorik ezaren erakusle da, beste inor iraintzeko bidea ematen baitu. Jesus igarotzen denean hala egitea otoitz egiteko modu zoragarria da. Hura igarotzen dela adierazten du, pobrezia, ekina, askatasuna kanpoko eraginen aurrean... eta Jesus azkenean hunkitu egiten da eta ekintzara jo.
<b>Ostirala Martxoak 4</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 44,1-9.12</li> <li>• Mk 11,21-26</li> </ul>		Ikaratu egiten du Jesus pikondoa madarikatzen entzutea. Itxura hutsa zen: orriak fruiturik gabe. Beldurtu egiten du pentsatzea Jesusen mespretxuaz apaindegiko erlijiosotasunaren aurrean: antzerkia eta ohitura benetakorik gabe, elkertasunik gabeko harrokeria, sentimentalismoa baina bihotza konbertitu gabe.
<b>Larunbata Martxoak 5</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Si 51,17-27</li> <li>• Mk 11,27-33</li> </ul>		Inoiz ez ezazu Jesus epaitu. Are gutxiago hari argibide edo frogarik eskatu. Hori egitea tranpa egitea da. Edo fidatzen zara edo ez. Ikaratu zaitetz Jesus zuretzat inoiz baliogabea izateko aukerarekin. Esan Jesusi: “Batuetan ez zaitut ulertzen; baina zaren bezala onartzen zaitut. Onar nazazu ni ere naizen moduan. Mesedez, Jauna”.
<b>Igandea Martxoak 6</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Dt 11,18.26-28</li> <li>• Erm 3,21-25a.28</li> <li>• Mt 7,21-27</li> </ul>	<b>Urtean zeharreko aldiko IX igandea(A)</b>	Kontua ez da “esatea” “egitea” baino. Ebanjelioa bizitzeko da, ez buruz ikasteko bakarrik. Zertarako duzu teologiako hainbeste agiri edukitzea edo otoizlaria izatea, Jainkoak eskatzen dizunaren ardurarik hartzen ez baduzu, zure inguruan dituzun premia eta larrialdien bitartez?
<b>Astelehena Martxoak 7</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tb 1,1a-2; 2,1-9</li> <li>• Mk 12,1-12</li> </ul>	<b>Felicidad eta Perpetua santa martirien memoria.</b>	Liturgiak gaur gogoratzen duen parabola hau berehala berretsiko litzateke Jesusen bizitzan. Berak bazekien. Entzuleek ere ulertu zuten. Ez Jesus bidali esku hutsik, zure bizitzan sartzeko inor ez dela esanez... Zertarako duzu haren aurrean babesa jartzea azkenean berarena denaz kontuak argitu beharko badituzu?

<b>Asteartea</b> <b>Martxoak 8</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Tb 2,10-23</li> <li>Mk 12,13-17</li> </ul>	Jesus maisua da dialektikan. Inork ezin ditu haren argumentuen argitasuna okertu. Ezta erretorikako tranparik finenekin ere. Zuk ere ezin duzu. Ez berari eraso, ez zu defenditu. Entzun egiozu, besterik ez. Jainkoari berea itzuli behar zaio. Zehatzago, zure bihotza.
---------------------------------------	---	---

## 9. Elkartearen batzarrerako

### 1. HASIERAKO MOTIBAZIOA

Otoitz labur bat egin ondoren (vgr: *Directorio Espiritual* 137. zk.) elkarteen batzarra zuzentzen duenak entzuteko eta parte hartzeko eragingo du. Elkarrekin banatu beharreko gaien sartu aurretik giro ona egotea komeni da. Lagungarri balitz, lasaitzeko ariketa erraz bat egitea proposatzen dugu:

- Isilaldi luzea egin (1 edo 2 minutu), nahi izanez gero begiak itxita, eta astiro arnasa hartuta; gorputza jarrera egokian dela, gorputz tentsiorik gabe.
- Denei esan isilik bakoitzak bere hitzekin Jainkoari eskatzeko Berak gidatu dezala batzarra, kendu ditzala errezeloak, mesfidantza, beldurra... apal eta garden bihur gaitzala.
- Isilik jarraituta, esan bakoitzak eska dezala elkarteko neba-arrebengatik. Jainkoak gidatu dezala haien bitzta.

### 2. NEBA-ARREBA ARTEKO ELKARRIZKETARAKO GAIK

Hasteko Quid Prodest-en hirugarren koaderno honetan egindako lana elkarrekin banatuko da. Elkarrizketa bi puntutara ekar daiteke:

- Zer aurkikuntza ekarri dit Sutegiko lanak aldi honetan?
- Zein dira nire sentimendu nagusiak orain?

Animatzailea saiatuko da giroa eta tonua ona izan dadin, aberasgarria, elkar poztu eta hobetzeko.

### 3. ONDORIOA

Amaitzeko *Directorio Espiritual*-eko 139. zenbakiko otoitza egin.

## 10. Laguntzeko zantzuak

- Ba al duzu laguntzailea ibilbide espiritualerako? Asko duzu jokoan, Joan Gurutzekoak hauxe dio: “Arima bera bakarrik, maisurik gabe, bertutea edukita, bakarrik dagoen ikatz biztua bezalakoa da: arinago hoztuko da bizten joan baino”. Helburua ez da beste bat bilatzea zure erantzukizunak hartzeko. Zure erabakiak zeuk hartu behar dituzu, behar den argitasunarekin. Baina garrantzitsua da alboan norbait izatea, bere prestakuntza eta esperientziarekin, zure bideari argia emateko, une zailtan batez ere, edozein momentutan sortu daitezke eta. Bakarrik geratzea arriskutsua da: “Ai bakarrik dagoena” (Qo 4,10).
- Ibilbide espiritualean lagundu zaitzaten, jarrera batzuk prestatu behar dituzu; hauek dira: konfiantza, gardentasuna, apaltasuna, prestantzia. Oso garrantzitsua da zu laguntza horren balioaz jabetzea, ez baduzu lehenengo arazoan utzi nahi. Ahaztu gabe zeregin horretan arduradun nagusia zeu zarela. Gogoratu Nisako Gregorio santuaren hitzak: “Neurri batean geure buruaren gurasoak geu gara, gure espirituaren

jarrera onaren eta gure aukeraz geu prestatu, sortu eta erditzen garenean”.

- Ez da nahikoa aitorlea, gure huts egiteak entzuten dituena, entzun duenez zerbait esan eta barkatzeko formula esaten dizuna. Laguntzaileak zeregin ezberdina dauka, hala ere posible da egiteko biak pertsona berak betetzea ere. Baztertu ‘berdin dio edonor’, ‘inork ez du balio horretarako’ edo ‘itxaron dezagun’ moduko esaldiak.
- Edonork ezin zaitu espiritualki lagundu, baina ez gehiegi eskatu ere, zure irudimenean bakarrik dagoen laguntzaile perfektua eskatuta. Esperientziak dio puntu honetan ‘biharko’ uztea datorren urterako uztea dela, eta datorren urterako uztea *sine die* uztea da. Claretetik zuzendari espiritualekin nolako harremana zeukan jakiteko, erreferentzia oso zehatzak dauzkagu. Autobiografiaren Jarraipena VI atalak izenburua zeukan *Cuenta de mi espíritu a mi Director espiritual al último del año de 1862. Quid Prodest* aukera apartekoa da benetan hartzeko era horretako erabakiak.

- Urtean zeharreko aldiko lehenengo bi hil hauetan ona da elkarrizketa arin egitea, prestatua eta lasaia, laguntzaile espiritualari gai hauetakoren bat azaltzeko, proposatzen zaizun lanetik aterata:
  - Zure egoera orain nolako den eta aldi labur honetarako aurreikusten duzun helburua.
  - Lectio divina-ko praxis pertsonala (erritmoa, arazoak, argiak, etab.).
  - Bokazioaz orain daukazu kontzientzia (egonkortasuna, motibazioak, tentazioak, askatasuna, etab.)
- Zure zauri oraindik irekiak, psikologiko eta espiritualak (ezagutu, adierazi, haientzako sendabidea bereiztea elkarrekin)
- Liturgia-aldi honetako lehenengo sailaren barruan, noiz eta nola jarraituko dugun komunikazio honekin (batzuek komunikazio laburra egiten dute 10-15 egunetik behin, batzuetan posta elektronikoaren bitartez).

## 10. Testuak

### I. ERANSKINA: Hazkuntza hasten da salaketa amaitzen denean.

*Giza heldutasunerako urrats garrantzitsuena da gure ekintza guztien gainean daukagun erantzukizunaren jabe egitea, barruan direla gure erantzun emozional eta jokabideak ere, bizitzako egoera guztietan. Hala ere, gure erreakzioen errua beste pertsona edo gauza batzuei botatzeko joera gizakia bera bezain zaharra da. Gutariko asko salatzaile gisa hazi gara eta gure jokabiderik okerrera ere defendatu egin dugu: «Zure erruz gertatu da»; «Neuri ere berdin egin zenidan»; «Zeure medizinatik eman besterik ez dut egin»... Gure porrotak justifikatzen ikasi dugu aitzakiatzat jarrita lanerako bitarteko egokirik ez geneukala, edo esanez «gure izarrak ez zeudela lerroan, eta ilargia ez zegoela egoera egokian». Tristeena da beste inori*

*errua botatzen diotenak ez daudela errealitateari lotuta eta, ondorioz, ez dute bere burua ezagutzen, ez dira heltzen ez hazten. Bizitzako errealitatea da: **hazkuntza hasten da salaketa amaitzen denean.** Errua botatzeko joera horren kontrakoa da gure bizitzaren gainean erantzukizun osoa onartzea, gure ekintzen ardura hartzea, ez errua botatzea. Beren ekintzen erantzukizuna hartzen dutenek badakite barruan zerbait daukatela beren erantzun emozionalak eta bizitzaren aurrean daukaten jokabidea azaltzeko. Eta argi dago hori dela heldutasunerako azken urratsa. Erantzukizunak ziurtatu egiten du gure hazkuntza.*

### II. ERANSKINA: Lagundu naizen modukoa izaten

Lagundu naizen modukoa izaten.

Lagundu esaten

egia indartsuen aurrean

eta gezurrik ez esaten

ahulen txaloak irabazteko.

Aberastasuna ematen badidazu, ez kendu arrazoia.

Arrakasta ematen badidazu, ez kendu apaltasuna.

Apaltasuna ematen badidazu, ez kendu duintasuna.

Lagundu beti ikusten

txanponaren beste aldea,

ez utzi besteei saldu izana leporatzen,

nire moduan pentsatzen ez dutelako.

Irakatsi jendea nire burua bezala maitatzen,

eta nire burua besteak bezala ez epaitzen.

Ez utzi harrokerietan erortzen gora egiten badut.

Irakatsi barkatzea handitasunaren erakusgarria dela

eta mendekua, berriz, zitaltasunaren adierazle.

Arrakasta kentzen badidazu,

utzi indarra porrotetik ikasteko.

Nik inor irainduko banu,

eman indarra barkamena eskatzeko.

Eta jendeak iraintzen banau,

eman indarra barkatzeko.

Jauna... ni zutaz ahazten banaiz,

zu ez zaitez inoiz nitaz ahaztu!

**M. Gandhi**



### III. ERANSKINA: Tommyren historia

Tommy lehenengoz ikusi nuen egunean begiak eta burua saltoka hasi zitzaizkidan. Inoiz ikusi gabe neukan halako mutilik, hain ile luzearekin. Nire buruak badaki balio duena ez dela buru gainean dagoena, barruan dagoena baino. Eta berehala ezarri nion Tommyri arraroaren ezaugarria... oso arraroarena.

Fedearen Teologiako ikastaldeko «ateo ofiziala» izan zen Tommy. Beti egiten zituen oharrak edo irribarreren bat Jainko Aita baldintzarik gabeko maitalearen aukera aipatzean. Sei hileko bat nahiko baketsu igaro genuen, nahiz eta batzuetan enbarazagarria zen. Urte amaieran tonu nahiko zinikoan galdetu zidan: «Zuk uste duzu egunen batean Jainkoa aurkituko dudala?». «Ez», erantzun nion gordin. «Tira...! –esan zidan–. Nik uste nuen zuk hori saltzen zenuela». Orduan esan nion: «Tommy! Ez dut uste inoiz aurkituko duzunik, baina ziur nago Berak zu aurkituko zaituela!». Sorbaldak altxatu eta aldendu zen nire gelatik eta nire bizitzatik (aldi baterako). Apur bat etsita sentitu nintzen nire esaldiaren mezua harrapatu ez zuelakoan: «Berak zu aurkituko zaitu!». Nik behintzat esaldi zuhurtzat neukan.

Geroago entzun nuen Tom lizentziatu egin zela. Eta gerora berri tristea heldu zitzaidan: Tommyk minbizia zeukan eta hilzorian zegoen. Ni haren bila joan aurretik bera etorri zitzaidan ikustera. Gorputzez nahiko galduta zegoen, baina begiak distiratsu zituen, eta ahotsa sendoa zen, lehenengoz. «Tommy, sarritan gogoratu naiz zurekin. Gaixorik zaudela heldu zait», bota nion.

-«Bai, oso gaixorik. Minbizia daukat birika bietan. Aste biko kontua da».

-«Horretaz hitz egin dezakezu, Tom?».

-«Jakina. Zer jakin nahi zenuke?».

-«Zer sentitzen da hilzorian zaudenean eta hogeita lau urte baino ez?».

-«Bueno..., txarragoa izan daiteke...».

-«Nola?».

-«Ba berrogeita hamar urte eduki eta ez balore edo idealik ez izatea, adibidez. Edo berrogeita hamar urte eduki eta pentsatzea bizitzako gauzarik

garrantzitsuenak alkohola, emakumeak eta dirua direla».

Buruko artxiboan arraro etiketarena berrikusten hasi nintzen, hartakotzat gorde bainuen Tomen oroimena. (Aitortu beharra daukat sailkapenen batean baztertu ditudan pertsona guztiak, Jainkoak berriro bidali dizkidala bizitzan zehar ni hezteko).

-«Baina zu ikustera etorri banaiz, berez, klaseko azken egunean esan zenidan gauza bategatik izan da» –esan zidan Tomek. (Gogoratu egiten zuen!).

Eta jarraitu zuen:

-«Nik galdetu nizun ea Jainkoa inoiz aurkituko nuen, eta zuk esan zenidan: "Ez!", eta horrek harritu ninduen. Orduan gehitu zuen: "Baina berak zu aurkituko zaitu". Zer pentsatu asko eman zidan esaldi horrek, baita garai hartan Jainkoaren bila ahalegin handirik egiten ez nuenean ere. Baina medikuek izterondoan bultoa kendu eta txarra zela esan zidatenean, orduan gogor ekin nion Jainkoaren bila. Eta gaitza bizi-organoetara zabaldu zenean, zeruko brontzezko ateetan ukabilka hasi nintzen. Baina Jainkoa ez zen irten. Berez, ez zen ezer gertatu. Ahalegindu zara inoiz luzaroan zerbaitetan, neke handiz eta ezer lortu gabe? Psikologikoki gogaituta geratzen zara, saiatuaren saiatuaz. Eta orduan utzi egiten duzu bertan behera. Ba, egun batean esnatu nintzen eta, eskari hutsalak egiten jarraitu beharrean, Jainkoa hor zegoen edo ez ere ez nekien eta, etsi egin nuen. Erabaki nuen ez nuela ardurarik hartuko... ez Jainkoagatik ez etortzeko neukan bizimoduagatik ez horrekin zerikusia zuen ezergatik. Geratzen zitzaidan denbora probetxuzko zerbaitetan erabiliko nuela erabaki nuen. Zu eta zure klasea gogoratu nituen, eta behin zuk esan zenigun gauza bat ere: "Benetako tristura da bizitzan maitatu gabe igarotzea. Baina era berean tristea izango litzateke bizitza igarotzea eta mundutik aldentzea maite ditugun pertsoneri inoiz esan gabe maite ditugula".

Eta horrela hasi nintzen, zailenetik: aitarekin. Egunkaria irakurtzen ari zela, beragana hurbildu eta esan nion.

- "Aita..."

- "Bai, zer?" –galdetu zuen egunkariari begiratzeari utzi gabe.

- "Aita, zurekin hitz egin nahi dut".

- "Bai, esan".

- "Baina garrantzitsua da benetan". Egunkaria pare bat zentimetro jaitsi zituen.

- "Zer da ba?"

- "Aita, maite zaitut. Hori jakitea nahi nuen, besterik ez". Tomek irribarre egin zuen eta poza agerian zuela, barruan poz bero eta berezia baleuka moduan jarraitu zuen: «Egunkaria lurrera erori zen. Orduan aitak gauza bi egin zituen, nik inoiz ikusi gabe nituenak: negar egin zuen eta ni besarkatu ninduen. Gau osoa hitz egiten eman genuen, hurrengo egunean lanera joan behar zuen arren. Ni hain ondo sentitu nintzen aitaren ondoan, haren negar-malkoak ikusita, hark besarkatu ninduean, maite ninduela entzutean...

Amarekin eta anaia gaztearekin errazagoa izan zen. Nirekin negar egin zuten haiek ere, eta besarkatu egin ginen eta elkarri gauza atseginak esaten hasi ginen. Urteetan isilpean izandako gauzez hitz egin genuen. Gauza batek bakarrik tristatu ninduen: hainbeste itxaron izana. Ni han nengoen, heriotza zain neukala, eta orduan hasi berri ingurukoekin irekitzen, ordura arte itxita egondako pertsonekin.

Orduan behin buelta eman, eta Jainkoa han zegoen. Ez zen nigana etorri nik eskatu nionean. Ni orduan izango nintzen domatzailearen antzekoa, uztai eta guzti: "Aurrera, egin salto. Ea, hiru egun dituzu... hiru aste". Antza denez, Jainkoak bere erara eta bere garaian egiten ditu gauzak.

Baina garrantzitsuena da han zegoela. Aurkitu ninduen. Arrazoia zenuen. Aurkitu ninduen, baita nik bilatzeari utzita ere».

#### **IV. ERANSKINA: Bizkar-zorroarekin eta bihotza biztuta (Carlos Enrique Sánchez Miranda cmf)**

Kaixo, Carlos Sánchez Miranda naiz, nire bokazioaren historia azaldu nahi dizuet. Perun bizi naiz, 33 urte ditut, 13 daramat klaretar misiolari eta 8 apaiz. Zorionsua naiz deitua izateagatik eta gure historiak elkarrekin banatzea lagungarria izatea nahi dut, eguneroko erantzunean bultzada emateko.

##### **Lagun bat hurbiltzen da**

Ni Chepénen jaio nintzen, Peru iparraldean; han hazi nintzen, arrebeekin, familiako giro langile eta alaietan. Gurasoek egunero eramaten gintuzten mezara eta ni zazpi urterekin hasi nintzen Aita Fernando Rojas laguntzen. Deigarri egiten zitzaidan otoitzean ikustea meza hasi aurretik sagrarioaren aurrean beti. Behin galdetu egin nion ea zergatik geratzen zen han hainbeste denboran eta esan zidan bere Lagunik onenarekin egotea gustatzen zitzaioala. Niri zirrara handia egin zidan gauza bera bizi nuelako.

Umetan beste esperientzia bat izan nuen arrastoa utzi zidana, ikustean beste meza-mutilek jauna hartzen zutela eta nik ez. Behin Aitari galdetu nion ea nik zergatik ezin nuen gure Jauna hartu eta esan zidan bataiatu gabe nengoela. Orduan azaldu zidan zer zen sakramentu hori eta nolako garrantzia zeukan Jesus hartzea Eukaristian. Aste batzuetan katekesira joan eta gurasoengana jo nuen. Hamar

urte nituela, esan nien bataiatzea erabaki nuela. Kontra jarri ziren, aita-amabitxiak urrunetik etortzeko zain zeudelako, baina hala ere 1982ko azaroaren 29an sakramentu biak hartu nituen; uste dut egun hori etapa luze baten tontorra izan zela. Aldi berean sentitu nituen poza, Jesusen adiskidetasuna aurkitu izanagatik, eta apaiz izateko gogo sendoa, Jesus hurbil dagoela aurkitzen lagundu zidanaren moduan.

##### **Lagun bat ostendu da, baina oso hurbil dago.**

Heziketa hobea hartzekotan, hamabi urterekin Trujillora joan nintzen Klaretarren ikastetxean ikastera. Hiri horretan egin nituen urte biak gogorak izan ziren, nerabe garaian. Familia eta lagunengandik urrun egoteak min ematen zidan, baina aldi berean pozgarriak izan ziren osaba-izebek hartu nindutelako eta lagun berriak egin nituelako. Premia eta bilaketa horien guztien erdian ez nintzen Eukaristia hain sarri joaten, ez lehen bezain sarri behintzat, are gehiago, ikastetxeak berak kontrolatzen zuen betebeharra bihurtu zen. Apurka-apurka ahaztu egin nuen apaiz izan nahi nuela eta beste amets eta egitasmo batzuk sortu ziren. Gogoz makal eta nahiko asaldatuta ibili arren, Jesusen adiskidetasuna beti izan nuen ondoan, eta berak indartzen eta animatzen ninduen, ni konturatu gabe ere.

## **Jaunak erakarri eta deitzen du**

14 urte nituenean gurasoak Limara joan ziren bizitzen. Ni bigarren hezkuntzako hirugarren maila ikasteko heldu nintzen Klaretarren Ikastetxera. Lehenengo urtea gogorra izan zen, familia osoak hiri handiago eta ezberdin batera egokitu behar izan genuelako. Jainkoaren esperientzia hozten zihoan nigan, nahiz eta igandeko mezara joateari utzi ez, sarritan etxetik urrun.

Hurrengo urtean gauzak asko aldatu ziren. Aita Sigifredo López, Ikastetxeko pastoral arduradunak, ikasle batzuei esan zien laguntzeko umeen jardunaldian. Konbite horri erantzun nion, jabetu gabe nire bizitzan aldi berri baten hasiera izango zela. Jardunaldi horretan egin genuena hainbeste gustatu zitzaidan, handik aurrera, igandez igande, indar eta gogo guztia zeregin horretan jartzen nuen.

Nerabe nintzen aldetik, bizitza familia, auzoko lagun, ikasketa eta ikastetxeko pastorealean ematen nuen. Apurka apurka apostolutza horrek bihotza bete zidan, eta haren bitartez, Jesusen adiskidetasunaren freskotasuna berreskuratzen joan nintzen otoitzean, eta apaiz izateko gurariaren garra berriz bizten. Baina nahi hori ez zen umetakoa, orain apaiz misiolari izan nahi nuen eta. Gogoratzen dut egun batean Aita Victorio Roblesek Aita Clareten *Autobiografia* oparitu zidala. Irentsi egin nuen egun pare batean. Hainbeste hunkitu ninduen, 16 urterekin jakin nahi nuen zer egin behar nuen

Claretek bezala nire egitekoa bideratzeko denek Jainkoa ezagutu eta maita zezaten.

## **Erantzunak bizitza osoa lotzen du**

Konturatu gabe, ikastetxekoa amaitzean bidegurutze batean nengoen: edo gurasoekin etorkizunerako amestutako egitasmoak bete edo Jainkoarekin harremana nuenean barruan sortzen zitzaidan suari eta apostolutzari jaramon egin. Zorionez ez nuen falta izan ondoan klaretarrak laguntzeko Jainkoaren borondatea bereizten, eta ausardiaz eta pozik hari erantzuteko animatu ninduten. Garai sakona eta erabakigarria izan zen. 1989ko urtarrilaren 3an, bizkar-zorroa hartu eta bihotza mundu osoa erre nahi zuen suaz biztuta, Magdalena del Marreko postulandotako sartu nintzen.

Ilusioz eta ametsez betetako erantzun hori, urteak igaro ahala sendotu egin zen. Ikasketak, otoitza, apostolutza, anaitasuna... denak izan nituen lagungarri heldutasunerako. Gure behartsuen errealitatearekin harremana izatea erronka izan zen eta kezka bete ninduen. Arazoek eta erorikoek ez zuten itzali; alderantziz, gizatiarrago, sineskorrago bihurtu zuten eta areago biztu zuten Jainkoaren maitasun leial eta doakoa. Eskertuta nago maitasun horregatik eta nahi dut nire bizitza osoa, bere aberastasun eta muga eta guzti, guztiz konprometitua egotea Jesus misiolariari jarraitzeko nire anaiekin, Clareten antzera.